



DIRU SARRERAK

Gure proiektua aurrera eramateko gure irabazi iturriak finkatzea ezinbestekoa izango da, hori, lana errazteko metodo egokia baita. Iturri hauek zehaztu ahal izateko, gure irabazien, hau da, **Fast Slipt Up**en nondik norakoak aztertuko ditugu.

Hasteko, gure bezeroa edozein izan daitekenez, prezio eskuragarria eskaini nahi dugu haiek ekonomikoki pilulak tragatzearen zailtasuna konpontzeko. Horretarako, pilula zatitzailea prezio baxuan jarriko dugu bezeroaren beharretara egokitu ahal izateko. Hori kontuan hartuta, salmentak gure irabazien %75a emango digute.

Jarraitzeko, irabaziak lortu ahal izateko, diru sarrerak beharrezkoak izango dira eta horretarako, farmaziekin publizitatea egingo dugu. Aliantza hori ezinbestekoa dela uste dugu pilulak bertan erosten direlako eta bezeroak erakarriko dituelako. Farmaziek gure publizitatea egingo dute eta guk haiena. Gainera, Bayer enpresarekin bat egingo dugu haien ospea kontuan izanik, gure enpresek arrakasta gehiago izan dezan. Haien produktu batzuk gurearekin batuta gure salmentek gora egingo lukete. Bi aliantza horiek gure irabazien %25 izango dira.

Bukatzeko, gure produktua oraindik eskuragarriagoa izan dadin, deskontuak emango dizkiegu bezero senior guztiei, hau da, 65 urte baino gehiago dituen orori %5eko deskontua emango diogu gure produktuan. Horrela, kontsumitzaileen sektore hori gehiago interesatuko da gure produktuan, eta maitatuago sentituko dira; izan ere, azken finean, gure produktua batez ere haientzat bideratua da, etxeko gazteenekin batera.

Laburtuz, gure irabazi-iturriak (azpiko grafikoan ikusi daitekeen bezala) honela banatuko dira: publizitateak %25a emango digu eta bezeroek %75a. Banaketa hori gure enpresak aurrera jarraitzeko oso garrantzitsua izango da, eta gure zerbitzua eskaintzeaz gain, beste era batzuetara dirua lortzeko publizitatea aukera paregabea dela pentsatzen dugu.

